

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERNEDOKO UDALA

#### Behin betiko onestea 2019ko ekitaldirako aurrekontu orokorra

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin, eta inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez 2017ko aurrekontu orokorrari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onetsi da, honela laburtuta, kapituluka:

#### DIRU SARREREN EGOERA

DIRU SARREREN HASIERAKO AURREIKUSPENAK, KAPITULUKA	ZENBATEKOA
1. Zuzeneko zergak	242.886,00
2. Zeharkako zergak	22.000,00
3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	38.453,00
4. Transferentzia korranteak	229.187,04
5. Ondare bidezko diru sarrerak	25.602,00
<b>Diru sarreara arruntak (1-5 batura)</b>	<b>558.128,04</b>
6. inbertsio errealak besterentzea eta hirigintza jardunetatik eskuratutako beste diru sarreara batzuk	25.000,00
7. Kapital transferentziak	70.820,80
8. Finantza-aktiboak	
9. Finantza-pasiboak	
<b>Diru sarrearen aurrekontua, guztira</b>	<b>653.948,84</b>

#### GASTUEN EGOERA

GASTUEN HASIERAKO KREDITUAK, KAPITULUKA	ZENBATEKOA
1. Langile gastuak	159.194,56
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	288.406,51
3. Finantza gastuak	1.936,00
4. Transferentzia arruntak	88.663,23
<b>Gastu arruntak (1-4 batura)</b>	<b>538.200,30</b>
6. Inbertsio errealak	95.967,09
7. Kapital transferentziak	7.781,45
8. Finantza-aktiboak	0,00
9. Finantza-pasiboak	12.000,00
<b>Gastuen aurrekontua, guztira</b>	<b>653.948,84</b>

Aldi berean, eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal funtzio publikoaren Legearen 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, osorik argitaratzen da udal honek onartutako langileen plantilla eta lanpostu zerrenda.

#### Aurrekontu plantilla

##### A. Karrerako funtzionarioak.

##### 1. Estatu osorako gaikuntza duten funtzionarioak.

1. Idazkaritza-kontuhartzaitza; taldea: A1; destino-osagarriaren maila: 26; berariazko osagarria: 22.972,74 euro; hizkuntza eskakizuna: 4; derrigortasun datarik gabe. Administrazio egoera: aktiboan.

**B. Administrazio orokorreko funtzionarioak.****1. Azpieskala: laguntzaileak.**

1. Administrari laguntzailea (askotariko eginkizunak); taldea: C2; destino-osagarriaren maila: 18; berariazko osagarria: 18.689,30 euro; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun datarik gabe. Administrazio egoera: bitartekoa.

Halaber, bat etorritoki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak 75.5 artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira dedikaziorik gabeko korporatiboentzat onartu diren ordainsariak:

1. 2015eko abenduaren 9ko erabaki bidez, alkate andreak dedikazio erregimen partzialean (ehuneko 42,85) jardungo du, eta haren soldata gordina 17.338,86 euro izango da.

2. Zinegotziek 60 euroko ordainsaria jasoko dute udalbatzetara, batzordeetara eta bileretara joateagatik (gehienez ere 2.000 euro).

Aurrekontu orokorra behin betiko onartzearen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Nahi izanez gero, eta administrazioarekiko auzibideari ekin baino lehen, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke udalbatzari, iragarki hau argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta hilabeteko epean.

Bernedo, 2019ko urtarrilaren 29a

*Alkatea*

*ANA VILLASANTE RUIZ DE ARCAUTE*